



BERMEOKO UDALERRIAN IKUS- ENTZUNEZKOEN GRABAKETAK EGITEA ARAUTZEKO ORDENANTZA

ZIOEN AZALPENA

Ordenantza honen helburua, Bermeoko udalerriko jabari publikoan egiten diren ikus-entzunezkoen grabaketak arautzea da, indarrean dagoen legediak ezartzen dituen mugen eta garapen ahalmenekin bat, grabaketa hauek, babestu beharreko jabari berarekin, jabari publikoaren erabilera orokorrarekin, eta herriaren irudiaren babesarekin bateragarri egiteko.

Hemen araututakoa aplikagarria izango da ere erabilera publikodun gune pribatueta eta, Bermeoko Udalaren ondasun pribatueta, betiere ondasunaren ezaugarriekin bateragarria bada.

Aipamen eta araubide berezia dauka, Ordenantza honen barruan, Gaztelugatxeko eremuan egindako grabaketak, babestutako biotopoa eta erakargarritasun turistiko handia daukan gunea izanda, erabilera orokorra, eremua eta irudia babesteko betebeharrak uztartzeko, ahalegin eta xedapen berezituak eskatzen dituelako.

Ordenantzaren beharrezana, erabilera ezberdinen arteko bateragarritasuna bermatzeko beharrean eta Bermeoko Udalerrian jabaria eta irudia errespetatuz eta herriko interes orokorrekin egiten dela bermatzeko beharrean oinarritzen da, erabilerak uztartzeko, eraginkortasuna lortzeko eta herriaren jabari eta irudia babesteko tresna egokia delako.

Are gehiago, azken urteetan, Bermeoko Udalerririk eta bere parajeak, mota anitzenetako ikus-entzunezko grabaketak egiteko daukaten interesa kontutan edukita.

Ordenantzan xedatutakoak, ase nahi diren beharrezan bermatzeko gutxienekoak dira, eta proportzionaltasunez arautzen dira, erabilera orokorraren, jabariaren eta herriaren irudiaren babesean beti, baina bateragarriak eta jabari zein herriaren irudiarekin errespetuzkoak izan daitezkeen grabaketak ahalbidetzeko moduko xedapenak jasota.

Araubide honen bidez, gainera, interesdunen eta herritarren segurtasun juridikoa bermatu nahi da, bai jabariaren eta herriaren irudia babesteko baldintzak jasotzen direlako, bai erabilera orokorra babesteko neurriak ezartzen direlako, baita ere grabaketak egiteko eskariak, ezaugarriak eta betekizunak arautzen direlako.

Eta hori guztia araututa edukitzeak, gardentasunaren argipean aritzea indartzen duen moduan, era arautuan eta normalizatuan jarduteak, administrazioaren funtzionamenduan efizientzia handitzea ekarriko du ezinbestean.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2022
08:09:52

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0155

Data: 08/06/2022

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:

Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4

AR-E 88/01-22

CSV: 07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4





LEHENENGO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honen bidez Bermeoko udalerriko jabari publikoan ikus-entzunezko grabaketak eta horiek egiteko lortu behar diren baimenak eskuratzeko prozedura arautu nahi dira, herritarrek egin dezaketen jabari publikoaren erabilera orokorra ezereztu ez dadin, jabariaren eta herriaren irudia kaltetu ez dadin eta baimengarriak diren bestelako grabaketekiko bateragarritasuna ahalbidetzeko.

Ikus-entzunezko grabaketa moduan ulertuko dira zinema, film luze, ertain, labur, telebista-programa, dokumental, publizitate-iragarki, bideo, erreportaje fotografiko edo ikus-entzunezko sektoreko beste edozein produkturen filmaketa- edo grabazio-jarduera.

Ondare- izaerazko udal ondasunetan eta erabilera publikoko gune pribatuetan grabaketak egiteko baimenen kasuan ere, aplikagarria izango da, ordenantza honetako 6. eta 7. artikuluetan jasotakoaren arabera.

2. artikulua: Aplikazio-eremua.

Ordenantza hau, Bermeoko udalerriko jabari publikoan eta erabilera publikoko ondasun pribatuetan egin nahi diren ikus-entzunezko grabaketei aplikatuko zaie, beste administrazioei dagokien eskumen eta atribuzioen kalterik gabe, eta bestelako baimenak eskuratu behar izanaren kalterik gabe.

3. artikulua: Esklusioak.

1. Ordenantza honen aplikaziotik kanpo geratzen dira eta, ondorioz, ez dute udal-baimenik beharko:

- Argazki-erreportajeak egitea eskuzko kamerarekin edo kamera sorbaldan jarrita edo tripode bidez bide publikoan edo espazio libreetan, inolako instalaziorik behar ez dutenean eta espazioak mugatzea edo oinezkoen edo ibilgailuen zirkulazioa mugatzea beharrezkoa ez denean.
- Telebistako informazio-saioetarako irudiak grabatzea, kamera sorbaldan eramanda edo tripode bidez, inolako instalaziorik behar ez bada eta espazioak mugatzea edo oinezkoen edo ibilgailuen joan-etorria mugatzea ez badakar.

4. artikulua: Definizioak.

Ordenantza honen eraginetarako definizioak:

1. Jabari publikoa: Erabilera publikora bideratutako edo zerbitzu publiko bati lotutako Bermeoko Udalaren edo bere mendeko erakundearen titularitateko ondasun eta




Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZ ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2022
08:09:52

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0155
Data: 08/06/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4
AR-E 88/01-22

CSV: 07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4





eskubideak, eta baita ere legeren batek jabari publikoko izaera ematen dieten ondasun eta eskubideak.

2. Ondare-izaerako ondasunak: Bermeoko Udalaren edo mendeko erakundeentzakoak izanda ere, erabilera publikora edo zerbitzu publiko batera lotutakoak ez diren ondasunak, eta udalarentzat edo bere mendeko erakundeentzat sarrera edo aprobetxamenduak sortarazteko gaitasuna dutenak.

3. Erabilera publikoko gune pribatuak: nahiz eta jabetza pribatua mantendu, hirigintza planeamenduaren arabera horrela izendatuta egon, eta herritarren erabilera publikora bideratuta daudenak.

4. Baimena: grabaketa egiteko ahalmentzen duen erabaki edo akordio idatzia.

5. Antolatzailea: burutu nahi den grabaketaren sustatze, antolaketa eta garapenaren ardura daukan pertsona fisiko, juridikoa, edo bestelako entitatea.

5. artikulua: Baimenak.

1. Baimena beharko dute 3. artikuluan jasota ez dagoen eta jabari publikoan egiten den edonolako ikus- entzuneko produkturen grabaketak, eta baimen hori aldeztu aurretik eskuratu beharko da.

2. Baimen horrek barne hartuko ditu, beharrezkoa izanez gero, bide publikoa, espazio libreak, udal-jabetzako monumentuak, eraikinak, edo eragin eremuko edozein gune okupatzeko eta/edo udal-zerbitzuak emateko lizentzia osagarriak (udaltzaingoa, ura, argindarra, trafikoa, hesiak, etab.), eta ez dira modu independentean eskatu beharko.

3. Grabatzeko baimen orokorra, barnean har ditzakeen espazioak okupatzeko edo zerbitzuak emateko baimenekin batera, ukatu, eten edo baliogabetu ahal izango da interes publikoko, haurren babeserako, pertsonaren duintasunerako, jabariaren eta herriaren irudia babeserako edo parekoak diren arrazoiek hala eskatzen dutenean, edo diziplina-araubidea aplikatuz bidezkoa denean.

4. Grabatzeko baimenak prekarioan ematen dira eta edozein momentutan, interes orokorreko arrazoiengatik, ukatu, aldatu, eten edo baliogabetu ahal izango dira.

5. Baimena lortzeko baldintzak betetzeak ez du suposatuko inolako eskubiderik eskatzaileentzat, Udalak baimenak onartu eta ukatzeko askatasuna edukiko duelako, bereziki interes orokorra kontuan edukita, grabaketa egin nahi duenaren interes partikularren gainetik. Hori dela eta, baimena onartu edo ukatzeko, interesen arteko eta beraien arteko bateragarritasunaren gaineko haztapena egingo da.

6. Baimen eskariak udalak horretarako onartutako ereduak erabilia eta Ordenantza honetan xedatutakoarekin bat egin beharko dira.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 - Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZ ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2022
08:09:52

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0155
Data: 08/06/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4
AR-E 88/01-22

CSV: 07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4





6. artikulua: Ondare-izaerako udal ondasunetan grabaketak egitea.

Ordenantza honetan xedatutakoak ondare-izaerako udal ondasunetan grabaketak egiteko Bermeoko Udalak eman ditzakeen baimenei era osagarrian aplikatuko zaie Ordenantzaren bertan jasotakoa errespetatzen bada eta ondare-izaerarekin bateraezina ez den bitartean.

7. artikulua: Erabilera publikoko gune pribatueta grabaketak egitea.

Ordenantza honetan xedatutakoak aplikagarriak izango dira ere erabilera publikoko gune pribatueta, izaera pribatuarekin bateraezina ez den bitartean.

8. artikulua: Grabaketak egiteko irizpideak.

1. Bermeoko Udalerriak grabatzeko baimenak ematea udalaren aukerazko egintzak dira. Baimenek, ahalmena ematen die baimendutako pertsona edo entitateei, eskatutako grabaketa egin, jabaria okupatu eta zehaztutako instalazioak jartzeko, Udalak ezarritako baldintza zehatzak beteta, eta baldintza horiek betetzen diren bitartean.

2. Grabaketak egiteko baimenak ematerakoan, interes publiko eta pribatuak uztartzeko, jabariaren erabilera arrunt orokorra eta eskatutako grabaketaren bateragarritasun irizpideak kontutan edukiko dira eta, gatazkarik egonez gero, erabilera arrunt orokorrak edukiko du lehentasuna interes orokorragatik.

3. Irisgarritasun legedia ere kontuan edukiko da, grabaketa egiten den bitartean, udal jabari publikoa oztoporik eduki ez dezan ahalbidetzeko.

4. Animaliekin egiten diren grabaketek une bakoitzean animaliak babesteari buruz indarrean dagoen legedia bete beharko dute.

Animaliek zaintzaileen laguntza izan behar dute beti, eta espezie bakoitzak behar dituen segurtasun-neurriak hartuko dira.

BIGARREN TITULUA. PROZEDURA, BALDINTZAK ETA BETEKIZUNAK.

I. KAPITULUA. PROZEDURA.

9. artikulua: Izapidetze bateratua.

Grabazioa egiteko baimen eskarian eskakizun ezberdinak jasoko balira, edota udalaren baliabideak uzteko eskaria ere egingo balitz, baimendu beharreko guztiaren izapidetze



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4
AR-E 88/01-22

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2022
08:09:52

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0155

Data: 08/06/2022

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:

Erregistro nagusia

CSV: 07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4





bakarra egingo da eta erabaki bakarreen jasoko da, horretarako beharrezkoak diren txostenak eskatuta dagozkien sail guztiei.

Kreditu-tituluetan Bermeoko Udalaren irudi korporatiboa agertu beharko da, kasu bakoitzean adierazten den formatuan.

10. artikulua: Prozedura orokorra.

Baimenen izapidetzea ordenantza honetan jasotakoaren arabera egingo da. Ordenantzan jasotzen ez den guztirako, Prozedura Administratibo Orokorreko legedian jasotakoa aplikatuko da, beharrezkoak liratekeen bestelako baimenei aplikagarria zaien legedia aplikatzearen kalterik gabe.


11. artikulua: Eskabidearen gutxieneko edukia eta aurkezteko gutxieneko epea.

1. Baimen eskariak hauek jasoko ditu gutxienez:

- Eskatzailearen datuak eta, beharrezkoa denean, ordezkariaren datuak, eskariaren data eta sinadura.
- Jakinarazpena egiteko bitarteko elektronikoa edo, derrigorturik egon ezean, leku fisikoa identifikatzea. Horrez gain, interesdunek beren helbide elektronikoa eta/edo gailu elektronikoa aurkeztu ahal izango dute, administrazio publikoek jakinarazpenaren bidalketaren edo eskuratzearen berri eman diezaieten.
- Grabaketak hartuko duen eremua, okupatu edo erabili nahi den gunearen kokapen zehatza, okupatu nahi den azalera zehaztuta.
- Grabaketen data edota epea.
- Hasiera eta amaiera data eta grabaketen ordutegiak eta, baldintza meteorologikoen ondorioz data aldaketak egin beharko balira, ordezkariak.
- Egin nahi den grabaketaren deskribapena eta argumentuaren laburpena.
- Ipini nahi diren instalazio edota tresnen deskribapena eta neurriak, eta kokapen planoa, osagarriak diren elementu eta instalazioak barne.
- Aurreikusitako parte hartzaile kopurua.
- Arduradunaren datuak: izen-abizenak, helbidea, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia.
- Grabaketa estaltzen duen erantzukizun zibileko poliza, frankiziarik gabekoa. Frankiziarik edukiko balu, frankiziaren besteko fidantza gehigarria aurkezteko aukera emango da.
- Grabaketan su-armak, lehergailuak eta material piroteknikoa, airezko grabaketak egiteko gailuak edota uniforme ofizialak, larrialdi-zerbitzuak simulatzen dituzten edozein ibilgailu edo atrezzo elementu erabiliko badituzte, horren inguruko informazioa aurkeztu beharko da.
- Grabaketaren berezitasunagatik, ezinbestekotzat ematen diren bestelako agiriak.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 - Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4
AR-E 88/01-22

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZ ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2022
08:09:52

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0155

Data: 08/06/2022

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:

Erregistro nagusia

CSV: 07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4





Eskabideak gutxieneko datuak edo dokumentuak edukiko ez balitu, akatsak zuzentzeko 10 laneguneko epea emango zaio eskatzaileari. Akatsak zuzentzeko errekerimenduan ohartaraziko da, emandako epean akatsak zuzenduko ez balira, eskariari uko egiten zaiola ulertuko dela eta artxibatu egingo dela, hori adierazten duen ebazpen bidez.

2. Baimen eskariak egutegiko 21 eguneko aurrerapenarekin aurkeztu beharko dira gutxienez.

Eskariak aipatutako epearen barruan ez aurkeztea, eskaria ez onartu eta artxibatzeke zio izango da. Salbuespenez, grabaketak interes orokorra badauka eta eskatzaileek ezin izan badute eskaria epez aurkeztu eurei egotzi ezin zaizkien arrazoiengatik, posible izango da baimena izapidetzea. Kasu horretan, espedientean dagozkion txosten guztiak egon beharko dira.

12. artikulua: Txostenak eskatzea.

1. Eskaria izapidetzeko ardura daukan sailak eskaria ebazteko beharrezkoak irizten dituen txostenak eskatuko ditu erabaki proposamena egin baino lehenago.

2. Ahal dela, txosten guztiak batera eskatuko dira, izapidetzea atzeratu ez dadin. Arau orokor moduan, txostenak 10 laneguneko epean eman beharko dira.

13. artikulua: Motibatzea eta jakinaraztea.

Baimena onartu edo ezeztatzen duen ebazpena motibatua izango da eta eskatzaileak eskatutako bidea erabilita jakinaraziko da, ez bada elektronikoki notifikatzeko derrigortasuna daukatela. Kasu honetan elektronikoa ez den beste biderik ez da erabiliko, interesdunak kontrakoa eskatu arren.

Ebazpena jakinaraztea lortuko ez balitz, Prozedura Administratibo Orokorreko legediak aurreikusitako bideak erabiliko dira jakinarazitzat emateko.

14. artikulua: Isiltasun administratiboaren erregimena.

Eskaria aurkeztu eta egutegiko 21 eguneko epea igarota edota eskarian zehaztutako eguna helduta baimenaren berariazko ebazpenik ez balego, eskaria isiltasun administratiboaz ezeztatuta geratu dela ulertuko da.

Horrek ez du esan nahi, egutegiko 21 eguneko epea igarota, eskarian zehaztutako eguna heldu baino lehenago, baieztatu berariazko baimena jasoko ez denik, ezta Bermeoko Udalak daukan erantzuteko beharra malgutzen denik. Baina jasoko ez balitz, ezeztatutzat hartuko da.

15. artikulua: Grabaketaren berezitasunengatik baimenak ukatzea.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data


MIREN KARMELE MUÑOZ ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2022
08:09:52

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0155

Data: 08/06/2022

Lekua: Bermeon

Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4
AR-E 88/01-22

CSV: 07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4





1. Udalak baimen eskari bat ukatu ahal izango du grabaketaren ezaugarriak edo argumentua, parte hartuko duten pertsonen kopurua, okupatu behar den eremua edo antzekoak kontuan edukita, segurtasuna arriskuan jar dezakeela, irisgarritasuna larriki oztopa dezakeela, inguruko zerbitzu publikoak oztopa ditzakeela, ekintza diskriminatzaileak grabatuko badira edota herriaren irudia kaltetu dezakeela antzemango balitz.

Horren kalterik gabe, segurtasuna, irisgarritasuna zerbitzu publikoen babesa eta berdintasuna bermatzeko, ukatzen den grabazioa garatzeko beste aukerak proposatu ahal izango dizkio interesdunari.

2. Baimen eskaria ukatu ahal izango da, eskatutako grabaketaren data eta leku berean antolatutako edo baimendutako ekimenekin bateragarri ezinak direnean. Bereziki, Bermeoko Udalak antolatu edo lagundutako ekimenekin talka egiten badute.

16. artikulua: Baimenen iraupena.

Baimenen iraupena ebazpenean espresuki jasotakoa izango da, eta ezingo da luzatu.

17. artikulua: Baimenen iraungitzea.

Ordenantza honekin araututako baimenak kasu hauetan iraungiko dira:

a) Eskatzailearen heriotza edo ezgaitasun eratorria gertatuko balitz, pertsona fisikoa izanez gero, edota pertsona juridikoa desagertuko balitz.

b) Udalak espresuki onartu gabeko baimendunaren aldaketa, eskualdaketa edo lagapena egongo balitz.

c) Epea igarotzea.

d) Baimena baliogabetzea.

e) Baimenean jasotako baldintzak eta mugak ez errespetatzea.

f) Alde bien adostasuna.

g) Tributu, kanon edo bestelako udal eskubideak ez ordaintzea, edo udalak horrela aitortutako betebeharren ez betetze larria egotea.

h) Derrigorrezko diru-bilketan Udalarekiko edonolako zorrak edukitzea.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2022
08:09:52

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0155
Data: 08/06/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4
AR-E 88/01-22

CSV: 07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4





i) Zaraten eta Dardaren aurkako babeserako udal Ordenantzan xedatutakoa ez betetzea eta ordenantza horretan zehaztutako baldintzak eta mugak ez errespetatzea.

j) Udalaren gainerako ordenantzetan xedatutakoa ez betetzea eta ordenantza horietan zehaztutako baldintzak eta mugak ez errespetatzea.

18. artikulua: Baimenak besterentzeko mugak.

Onartutako baimenak ezingo dira eskualdatu udalak ez badu esku-aldaketa espresuki onartzen. Eta hau ez betetzea baimena iraungitzeko zio izango da.

19. artikulua: Baimendunaren erantzukizuna eta aseguruaren ezaugarriak.

1. Grabaketaz arduratzen den ekoizpen-etxea izango da grabaketa-jarduerak eragin ditzaketen kalte eta galeren erantzule, bai Bermeoko Udalari, bai eragindako beste edozein erakunde publiko, pribatu eta partikularri, baimendutako jardueren ondorioz herritarrei eragin dakizkiekeen kalte fisikoak barne.

2. Horregatik, grabaketaz arduratzen den ekoizpen-etxeak, 11. artikuluan zehaztutako erantzukizun zibileko aseguru-poliza aurkeztu beharko du baimen eskariarekin batera, aurreko paragrafoan adierazitako kalte guztiak behar bezala estaltzeko.

3. Erantzukizun zibileko asegurua frankiziarik gabekoa izan beharko du edo, frankiziarik edukiko balu, frankiziaren besteko fidantza gehigarria aurkeztu beharko du baimena eskuratu ahal izateko.

4. Aseguru-poliza indarrean egon beharko du grabatze-jarduerak hasten direnetik guztiz amaitu arte.

5. Era berean, harpidetuta eta indarrean eduki beharko dira filmaketan sartzen diren bitarteko mekanikoetan eta ibilgailu motordunetan nahitaezkoak diren aseguru guztiak, bai norberarenak bai hirugarrenenak, eta horien kopiak baimen eskariarekin batera aurkeztu beharko dira.

II. KAPITULUA . BALDINTZAK ETA BETEKIZUNAK.

20. artikulua. Eragin txikienaren printzipioa.

Grabaketa-jarduerak udal-eskumeneko ondasun eta/edo zerbitzu publiko eta/edo pribatuei eragiten dieten kalteen izaera edozein dela ere, grabaketaren ardura duen ekoizpen-etxeak zaindu beharko du eragin horiek ahalik eta txikienak izan daitezen. Antzeko emaitzak eskaintzen dituzten aukera tekniko posibleen artean, grabaketaz arduratzen den ekoizpen-etxeak udal-eskumeneko ondasun eta/edo zerbitzu publiko eta/edo pribatuei ahalik eta kalte txikiena eragiten dieten aukerak aukeratu beharko ditu.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2022
08:09:52


EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0155

Fecha: 08/06/2022

Lekua: Bermeon

Erregistro unitadea:

Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4

AR-E 88/01-22

CSV: 07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4





21. artikulua. Arriskuen prebentzioa.

Erakunde eskatzaileek laneko arriskuen prebentzioari eta laneko segurtasunari buruzko araudian xedatutakoa bete beharko dute.

Bereziki, ibilgailuen trafikoari irekitako lekuetan egiten diren grabaketan, erakunde eskatzaileek indarrean dagoen araudian aurreikusitako bide-seinaleei buruzko arauak bete beharko dituzte.

22. artikulua. Bide publikoen erabilera eta okupazioa.

Grabatzeko baimenean jasotako jarraibideak beteko dira uneoro, eta gainerako herritarrek espazio bera erabil dezaten saiaturiko dira, grabazioaren xede den kokapena etengabe moztea edo ixtea baimentzen den grabaketan izan ezik.

Grabaketarako lizentzia lortzeak berekin ekarriko du, kasu horietan, bide publikoak erabili eta okupatzeko eskatutako lizentzia.

Dena dela, Udaltzaingoak ezarritako baldintzak eta emandako aginduak bete beharko dituzte uneoro.

23. artikulua. Parke eta lorategien okupazioa.

Bermeoko parke eta lorategiak bereziki zaindu beharko dira. Horregatik, baimenean jasotako jarraibideak bete beharko dira uneoro.

Oro har, honako hauek dira:

- Ezin izango da inolako jarduerarik egin lorategi-eremuetan, salbu eta haren ezaugarriak eta egoera direla- eta proposatutako espazioa baimendu badaiteke.
 - Ahal dela, asfaltatutako bideetatik zirkulatu eta aparkatu beharko dute grabaketarako beharrezkoak diren ibilgailuek.
 - Landaredia, hiri-altzariak eta dekorazio-elementuak babesteko beharrezkoak diren neurriak hartu behar dira.
 - Ahal den neurrian, asteburuetan eta jaiegunetan parkeak eta lorategiak helburu horietarako okupatzea saihestu behar da.
- Salbuespen gisa, hiriko parkeetan ikus-entzunezko produktuak grabatzeko baimenak aukera eman ahal izango du parke eta lorategiak jaiegunetan okupatzeko aurrez zehaztutako ordutegi zehatzean.

Grabatze-jarduerak amaitu ondoren, dagokion teknikariak kaltetutako berdeguneak berrikusiko ditu, horien ondorioz landaredian edo ekipamenduan izan diren kalteak zehazteko, eta, hala badagokio, grabaketaren ardura duen ekoizleari eragiteko.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2022
08:09:52

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0155

Data: 08/06/2022

Lekua: Bermeon

Erregistro unitadea:

Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4

AR-E 88/01-22

CSV: 07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4



24. artikulua. Lekua erreserbatzea eta ibilgailuak aparkatzea.

1. Grabaketa egiteko espazioak erreserbatu behar direnean, ibilgailuak aparkatu behar direnean edo makineria edo materialak pilatu behar direnean, grabatze-lizentzia eskatzean berariaz eskatuko da, eta leku zehatza, azalera, egunak eta ordutegiak adierazi beharko dira. Baldintza meteorologikoen ondorioz data aldaketak egin beharko balira, ordezkio datak ere adierazi beharko dira.
2. Erreserba horrek ezin izango du inola ere oinezkoen edo ibilgailuen joan-etorria mugatu.
3. Erreserbaren ondorioz ibilgailu partikularren bat edo jabetza pribatuko beste ondasunen bat kendu behar bada, Udaltzaingoak esku hartu beharko du, baimendunak artikulua honetako 5. atalean egin beharrekoak egitearen kalterik gabe.
4. Espaloiak ezin izango dira erabili ekipo teknikoak biltegiratzeko edo eraikuntza-jardueretarako.
5. Aparkatzeko baimena jaso ondoren, erakunde eskatzailea arduratuko da baimenean emandako eremua mugatzeaz eta dagokion erreserba egiteaz.
6. Horretarako, lekua erreserbatzeko baimeneko argibideei jarraituko die, besteak beste honako hauek jasoko dituenak:
 - Behar bezala seinalizatzea alde aurreko espazio-erreserba, dela grabaketa egiteko, dela ibilgailuak aparkatzeko edo makinak edo materialak pilotatzeko, ekoizleak berak grabaketa egin baino 72 ordu lehenago, homologatutako ohiz kanpoko seinalen bidez. Seinale horiek behar bezala ikusteko modukoak izango dira, eta "grabaketarako leku-erreserba" adieraziko da bertan, erreserba horrek hartuko dituen egunak adierazita.
 - Eremua mugatu ondoren, Udaltzaingoarekin harremanetan jarri behar da aparkatuta dauden ibilgailuak kentzeko beharrezko izapideak egin ditzan.
 - Grabaketaz arduratzen den ekoizpen-etxea Udaltzaingoarekin harremanetan jarri beharko da grabazioa egin baino 72 ordu lehenago, haren argibideak jarraitzeko.
 - Grabaketaren kokapenari edo premiei buruzko beste edozein betekizun espezifiko bete beharko da.
7. Erreserba hasteko emandako eguna iritsita, honako hau da lekua erreserbatzeko baimendutako eremua mugatzeko modua:
 - Eremua hesi, kono, zinta edo ekoizleak dituen beste elementu batzuekin mugatuko da.
 - Erreserbaren bi aldeetan aparkatzea debekatzeko seinalak jarriko dira.
 - Era berean, mugatutako eremuan aparkalekua erreserbatzeko baimenaren kopia bat jarriko da, ikus-entzunezko grabazioaren data eta ordua argi eta garbi adierazita.
8. Baimendunak 72 ordu lehenago jakinarazi beharko die grabatze-proiektuak zuzenean



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2022
08:09:52


EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0155

Data: 08/06/2022

Lekua: Bermeon

Erregistro unitadea:

Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4
AR-E 88/01-22

CSV: 07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4





eragiten dien pertsoneri, aurre-abisu baten bidez. Aurre-abisu horretan, errodajearen data(k), ordutegia, kokapen zehatza eta ezaugarriak adierazi beharko dira.

9. Ipin beharreko oharra eta egin beharreko abisu guztiak, elebidun egon beharko dira eta lehentasuna emango zaio euskerazko testuari, aurretik jarrita eta gaztelaniazko letra tamaina baino hiru aldiz haundiagon idatzita

10. Grabaketarako lizentzia lortzeak berekin ekarriko du, kasu horietan, ibilgailuak aparkatzeko eta/edo lekua erreserbatzeko eskatutako baimena.

25. artikulua. Ibilgailuen sarbidea eta zirkulazioa oinezkoentzako guneetara eta eremu mugatuetara edo leku gutxikotara.

Ibilgailuen sarrera eta zirkulazioa oinezkoentzako guneetan, eremu mugatuetan eta leku gutxikoetan, baimenean jasotako ibilbide eta ordutegien arabera bakarrik egingo da, eta uneoro dagokion baimenean eta Udaltzaingoak adierazitako beste argibide batzuei jarraituko zaie.

26. artikulua. Zamatanak.

Baimenean hala adierazten bada, zamatanak egiteko pasealekuak, espaloiak edo salgaiak garraiatzeko ibilgailuen zamatanetarako berariaz mugatuta ez dauden eremuak okupatu ahal izango dira, edo, oro har, gelditzea debekatuta dagoen lekuetan.

Zamatanak egiteko ibilgailuak sartu eta aparkatzea, bai eta zamatanak egitea ere, baimenean adierazitako ibilgailuek baino ez dute egingo, eta ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioari ahalik eta kalte txikiena eginez egin beharko dira, eta inola ere ezingo dituzte oinezkoen ibilbide nagusiak oztopatu.

Nolanahi ere, Bermeoko bide publikoan salgaien zamatanak arautzen dituen ordenantzen 7.etik 10.era bitarteko artikuluetan zamatanak egiteko arautzen diren xedapenak errespetatu beharko dira.

27. artikulua. Trafiko-mozketak eta bestelako eraginak.

1. Grabaketak trafikoa etetea eskatzen badu, arau hauek beteko dira:

- Ahal den neurrian, trafiko-mozketek ezinbestekotasunera mugatu behar dute, aldizkakoak izan behar dute.
- Une oro bermatuko da anbulantziak eta larrialdietako beste ibilgailu batzuk igarotzea.
- Udaltzaingoaren laguntza eskatu behar da.
- Ibilbide alternatiboak aurreikusi behar dira.
- Oinezkoak sartzea behar-beharrezkoa den denboran eragotzi behar da, eta arkitektura- eta irisgarritasun-oztopoak kentzeko neurriak aurreikusi behar dira, batez ere ezinduek ibiltzeko.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 - Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZ ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2022
08:09:52

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0155

Data: 08/06/2022

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:

Erregistro nagusia

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4

AR-E 88/01-22

CSV: 07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4





2. Edozein kasutan, baimenaren ebazpenean jasotako trafiko eta erabilera baldintzak bete beharko dira zorrotz.

3. Baldintzak beteko ez balira edo arrisku egoera sortzen dela ikusiko balitz, beharrezko neurriak ezarri edo agindu ahal izango dira, baita grabaketaren edo okupazioaren etena ere.

28. artikulua. Hiri-altzariak.

Guztiz debekatuta egongo da hiri-altzarietatik edozein elementu kentzea edo manipulatzeko udal eremu eskudunaren aldez aurreko baimenik eta ikuskapenik gabe.

Era berean, debekatuta dago zoladura edo hiri-altzarien beste edozein elementu zulatzea, edo haietan ainguratzeak egitea, grabaketetan erabili beharreko elementuak jartzeko, berariaz baimentzen ez bada, betiere baimenaren eskatzaileak egindako aldaketaren aurreko itxura eta egoerara itzultzeko baldintzarekin.

29. artikulua. Instalazio elektrikoak eta argiteria.

Erabat debekatuta dago grabatze-jardueretarako farolak, hurbileko zuhaitzak edo hiri-altzarien beste elementu batzuk erabiltzea, edozein motatako harguneen euskarri gisa.

30. artikulua. Kartelak, hesiak eta egiturak instalatzea.

Baimenak ahalbidetzen badu kartelak, egitura eramangarri edo desmuntagarriak, aldarmioak edo aireko plataformak instalatzea eta erabiltzea grabaketak egiteko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Erabili nahi diren instalazio edo egitura eramangarri edo desmuntagarriek arauzko segurtasun-, higie-, eta erosotasun-baldintzak bete beharko dituzte, eta hori teknikari eskudunaren ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da.
- Baimendutako jardueran erabilitako eremuaren albotik oinez ibiltzea bermatu beharko da uneoro, gutxienez 3 metro eta erdian.

31. artikulua. Trafiko-seinaleak.

Trafiko horizontalaren edo bertikalaren seinaleztapena aldatzea baimendu bada, grabaketa amaitu ondoren, lehengo egoerara itzuli beharko da, udaleko teknikariek edo Udaltzaingoa gainbegiratuta.

32. artikulua. Zaratak.

1. Grabatze-jarduerak prestatu eta garatzeko eta, ondorioz, horietarako baimen guztietarako, indarrean dagoen Zaraten eta Dardaren aurkako babeserako udal Ordenantzan ezarritako gehieneko zarata-mailak bete beharko dira.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 - Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2022
08:09:52

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0155

Data: 08/06/2022

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:

Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4
AR-E 88/01-22

CSV: 07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4





2. Gaueko errodaieak baimendu ahal izango dira, baldin eta dagokion Ordenantza betetzen badute; nolanahi ere, eraginpeko bizilagunei eta merkatariak jakinarazi beharko zaie, eta eragozpenak saihesteko eta atsedena bermatzeko beharrezko neurriak hartuko dira.

3. Bereziki, megafonia eta antzeko beste bitarteko batzuk erabiltzean ahalegina egin beharko du hurbilen dauden eraikinei transmititutako gehieneko soinu-mailak Ordenantza horretan ezarritako mugak ez gainditzeko.

4. Udalak erabat debekatu ahal izango du, aurrez zehaztutako eremuetan, megafoniaren eta antzeko baliabideen erabilera.

5. Baimenduna ahaleginduko da errodaieak egitean intsonorizatutako bitartekoak erabiltzen, teknikoki posible den heinean, bai eta errodaiekin lotutako zama-lanak egiten ere, udal-araudiak baimendutako ordutegien barruan.

33. artikulua. Udalaren titulartasuneko higiezinaren erabilera eta okupazioa.

1. Udal-titulartasuneko higiezinetan edo garrantzi historiko, artistiko, monumental eta abar berezia duten udalerriko beste kokapen batzuetan grabatzeko jarduerak, dagokion baimenean adierazitako estipulazioak bete beharko dituzte, eta, besteak beste, honako hauek hartu beharko dira kontuan:

- Errodaje-jardueretarako, udal higiezinaren altzarien edozein instalazio edo elementu eta edozein hartune mota udal teknikari batek gainbegiratuta erabili beharko da.
- Monumentuaren eta, hala badagokio, eraikinaren izaera historikoarekin eta/edo artistikoarekin bat ez datozen produktuak grabatzeko, ekoizpen-etxeak azalpen-txostena edo txostena egin beharko du, higiezina aukeratzeko interesa duela justifikatzeko.
- Monumentuko edo eraikineko teknikariek edo, gutxienez, haiek gainbegiratuta erabili beharko dute instalazio elektrikoa edo beste edozein azpiegitura.
- Grabaketa-taldeak eraikineko arduradunek emandako jarraibide guztiak bete beharko ditu, eta beharrezko neurriak hartu beharko ditu eraikineko elementuetan kalterik ez eragiteko, eta bertan sartzen den materialaren ikuskapena errazteko, hala eskatuz gero.
- Ekoizleak zaindu egin behar du taldeko kideek eraikinarekiko duten portaera eta errespetua, eta ematen zaien identifikazio-txartela agerian eraman behar dute.
- Kreditu-tituluetan eraikinaren titularraren lankidetzat agertu beharko da.

2. Errodajerako lizentzia lortzeki berekin ekarriko du, kasu horietan, udal higiezinako edo higiezinetako altzari, instalazio edota elementu erabiltzeko baimena eta eskatutako edozein hartune mota egitekoa.

34. artikulua. Su-armak, lehergailuak eta material piroteknikoa. Simulazioak.

1. Suzko armak, lehergailuak, material piroteknikoa edo efektu berezietako aparatuak



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 - Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZ ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2022
08:09:52

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0155

Data: 08/06/2022

Lekua: Bermeon

Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia

Agiri hau benetakoa dala udalaren
egoitza elektronikoan egiaztatu ahal
dozu.

Kodea:

07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4
AR-E 88/01-22

CSV: 07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4





erabiltzen diren grabatze-jarduerak, agintari eskudunen baimenak beharko dituzte, garraiatu, biltegiatu eta erabiltzeko.

2. Hiri-altzarien elementu guztiak behar bezala babestu beharko dira.

3. Edozein grabaketan erabiltzen diren armak – lehergarriak edo jaurtigairik gabekoak – erabiltezin egongo dira, eta ez dira benetako sua egiteko egokiak izango.

4. Funtzionamendu-egoera normalean erabiltzen badira, arma horiek jaurtigairik gabeko kartutxoarekin bakarrik erabili ahal izango dira, eta behar bezala dokumentatuta egongo dira, kategoriaren arabera.

5. Erabili beharreko arma, lehergai edo efektu berezien dokumentazio guztia Udaltzaingoa eraman beharko da grabaketa hasi baino 72 ordu lehenago.

6. Era berean eta aurrerapen berdinarekin jakinaraziko zaio Udaltzaingoiari uniforme ofizialak edo larrialdi-zerbitzuak simulatzen dituzten edozein ibilgailu edo atrezzo elementu erabiliko dituztela.

Eszena eta hartualdi artean, eta ahal den neurrian, uniformeak eta ibilgailuak edo horien bereizgarriak ezkutatu egin beharko dira.

35. artikulua. Cateringa.

Grabatze-lizentziek berariaz baimentzen ez badute behintzat, debekatuta dago grabaketa-taldeek bide publikoetan eta hiriko beste espazio libre batzuetan "catering" edo antzeko zerbitzuak antolatzea.

36. artikulua. Aireko grabaketak.

Aireko planoak grabatzea (hegazkinetatik, helikopteroetatik, droneetatik edo aireko irudiak hartzea ahalbidetzen duen beste edozein euskarritatik) eta/edo paraxutistekin grabatzea dakarten ekoizpenak aire-jarduerak arautzen dituen legediaren arabera eta beharrezkoak diren baimen bereziak eskuratu ondoren egin beharko dira, kasu bakoitzean egokiak diren udal-baimenak eskuratzeko betebeharra eragotzi gabe.


37. artikulua. Kableak eta argiztapena.

1. Grabaketak egiteko beharrezkoak diren instalazio elektrikoek Behe Tentsioko Araudi Elektroteknikoa eta haren jarraibide osagarriak bete beharko dituzte.

2. Eskatutako jarduerarako energia hartzeko lineak segurtasun- eta prebentzio-neurri nahikoak izan beharko dituzte, eremutik igarotzen diren oinezkoek istripurik izan ez dezaten.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4
AR-E 88/01-22

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2022
08:09:52

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0155

Data: 08/06/2022

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:

Erregistro nagusia

CSV: 07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4





3. Debekatuta dago farolak edo hurbileko zuhaitzak erabiltzea jardueraren edozein motatako hartuneen euskarri gisa.

4. Kableak instalatzeko, hala baimentzen bada, arau hauek bete behar dira:

- Espaloien eta fatxaden arteko loturetan jarri behar dira, eta eskaileretan finkatu behar dira estropezu ez egiteko.
- Multzo elektrogenoak ahalik eta hurbilen jarriko dira, bide publikoak zeharkatzen dituen kablerek ez jartzeko.
- Aireko instalazioa behar denean, gutxieneko altuera udal-zerbitzuek finkatu beharko dute.
- Espaloien gainean jartzen direnean, gutxienez metro bateko zabalerako gomazko alfonbra batez estaliko dira, lurrian finkatuta, eta argi-konoz edo ikuspen handiko zintaz seinaleztatu behar dira.

- Baimen berezia eskatu behar da hiri-altzariei kableak erantsi nahi bazaizkie.

5. Kaltetutako bizilagunei eta merkatariei aurreikusitako argiztapen-plana jakinarazteko betebeharrari kalterik egin gabe, beharrezko neurriak hartu beharko dira eragozpenak saihesteko eta atsedena bermatzeko.

38. artikulua. Ureztatze-ahoak

Ureztatze-ahoak erabiltzea baimentzen bada, udal teknikariak gainbegiratuta erabiliko dira, eta bermatu egin beharko da, larrialdi kasuan, Suteak Prebenitzeko eta Itzaltzeko Zerbitzuek erabili ahal izatea.

39. artikulua. Garabiak, aldamioak eta aireko plataformak

1. Grabazio-garabiak, aldamioak edo aireko plataformak erabiltzen badira, baimen eskarian haien ezaugarrien eta kokapenaren berri eman beharko da, eta horien erantzukizun zibileko aseguruia aurkeztu beharko da, sinatuta eta indarrean.

2. Gauez eta ikuspen urriko baldintzetan, behar bezala seinaleztatu behar dira.

3. Horiek muntatzean eta desmuntatzean, ahalik eta zarata eta eragozpen gutxien sortu beharko da.

40. artikulua. Segurtasuna.

1. Baimendutako grabatze-jardueren aurretik, honako hauek izango dute lehentasuna:

- Anbulantziak eta larrialdietako beste edozein ibilgailu igarotzea.
- Garraio publikoa igarotzea.




Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZ ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2022
08:09:52

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0155
Data: 08/06/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4
AR-E 88/01-22

CSV: 07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4





- Mugikortasun murriztua duten oinezkoen joan-etorri askea, haientzako irisgarritasun-oztopoak sortzea saihestuz.

2. Nolanahi ere, grabatze-jarduerak libre utzi beharko dituzte ibilgailuak aparkatzeko lokal edo lursail partikularretara (ibiak) sartzeko espazio libreak.

41. artikulua. Garbiketa.

1. Baimenduna arduratuko da baimendutako grabaketak egin diren lekuak erabat garbitzeaz.

2. Grabaketek eragindako lekuak aldeztu aurretik egondako egoerara itzultzeko garbiketa-lanak ahalik eta lasterren egingo dira.

3. Balizko hondakinak ingurumen- jasangarritasunaren printzipioen arabera sailkatu eta kudeatu beharko dira.

4. Aurreko betebeharrak betetzen ez bada, baimendunak udal-zerbitzuen konturako garbiketa-kostuak ordaindu beharko ditu, bai eta udal-ordenantza honetan edo beste batzuetan ezarritakoa ez betetzeagatik ezar daitezkeen zehapenak ere.

42. artikulua: Hiri-altzarien birjartzea

1. Baimendutako grabaketen ondorioz hiri-altzarietan eraginik balego, aurreko egoeran birjarri beharko dira, berdin behin-behingo kendu badira edo kaltetu egin badira.

2. Kasua edozein dela ere birjartzea egiteko proposamena aurkeztuko da udalean eta udalak ezarritako baldintzen arabera egin beharko da.

3. Horrela egingo ez balitz, udalak egingo du birjartze hori baimendunaren kontura. Ahal dela jarritako bermearen kontura egingo da eta, gastu guztiak estaltzeko nahikoa ez balitz, estali gabeko zatia ordaindu beharko du baimenduak.

4. Sortutako kalteen ondorioz aurreko egoera birjarri ezingo balitz, kaltetutako ondasunen balioaren besteko kalte-ordaina eskuratuko du Udalak baimenduarengatik.

Eta hori guztia, egokia izan daitekeen zigor espedientearen izapidetzearen kalterik gabe.

43. artikulua. Eragindako pertsonak informatzea.

1. Baimena eskatzen duen ekoizpen-etxeak, grabaketak hasi baino hirurogeita hamabi (72) ordu lehenago gutxienez, horren berri eman beharko die grabatze-proiektuak zuzenean eragiten dien pertsonen.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 - Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZ ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2022
08:09:52

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0155

Data: 08/06/2022

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:

Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4

AR-E 88/01-22

CSV: 07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4





2. Horretarako, aurre-abisu bat eman beharko du eta, bertan, grabaketaren data, ordutegia, kokapen zehatza, ezaugarriak, eta baimendunaren harremanetarako datuak adierazi beharko ditu, bai eta grabaketak sor ditzakeen beste edozein eragozpen edo gorabehera ere.

Aurre-abisu horretan, ordenantza honetako 24. artikularen 9. atalean zehaztutako hizkuntza irizpideak bete beharko dira.

3. Ondorio bereziki zaratatsuak, eszena arriskutsuak edo herritarren alarma sor dezakeen beste edozein jarduera dakarten grabaketa-proiektuen kasuan, aldez aurretik jakinarazteko betebeharra, zeharka eragindako pertsona guztiei ere zabalduko zaie.

44. artikulua. Grabaketak eta parte hartzaileak identifikatzea.

1. Grabatze-jardueretan, grabaketa-taldeetako kideek behar bezala identifikatuta egon beharko dute.

2. Trafikoa moztea dakarten bide publikoko grabaketetan, gaueko grabaketetan edo ikuspen gutxikoetan, grabaketa-ekipoetako kideek ikuspen handiko materiala duten jantziak erabili beharko dituzte. Halaber, grabatze-materialak behar bezala seinaleztatu beharko dira.

3. Grabatze-jarduerak behar bezala seinaleztatuta eta hesituta egon beharko dira.

4. Bide publikoan egiten diren grabatze-jarduerak, lanaldi erditik gorakoak badira, behar bezala identifikatu beharko dira. Horretarako, baimendunak, kartelak jarri beharko ditu grabaketaren ageriko lekuetan.

Kartel horietan, grabatze-proiektuari buruzko oinarrizko datuak jaso beharko dira, eta Bermeoko Udalak horietan izandako lankidetzak aipatu beharko da. Kartel horiek 24. artikuluko 9. atalean zehaztutako hizkuntza irizpideak bete beharko dituzte.

45. artikulua. Kreditu-tituluak


1. Grabaketa zinematografikoak egiten direnean, press bookean eta kreditu-tituluetan Bermeoko Udalaren lankidetzak jasoko da, Bermeoko Udalaren logotipoarekin batera.

2. Filmaketaz arduratzen den ekoizpen etxeak baimena emango dio Bermeoko Udalari, idatzizko baimenarekin, aldez aurretik bien artean adosten diren grabazioko edukien argazkiak egin ditzan.

3. Bermeoko Udalak konpromisoa hartuko du horrela lortutako irudien konfidentzialtasuna gordetzeko filmazioa estreinatu arte.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 - Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4
AR-E 88/01-22

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZ ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2022
08:09:52

EXPEDIENTE ::

2022IDA_ERA_0155

Data: 08/06/2022

Lekua: Bermeon

Erregistro unitadea:

Erregistro nagusia

CSV: 07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4





4. Bermeoko Udalak promozio helburuetarako erabili ahal izango du bere laguntzarekin filmatutako ikus-entzunezko produktuen promozio dokumentazioa (argazkiak, bideoak, kartelak, etab.).

46. artikulua: Ikuskatzea eta kontrola

1. Bermeoko Udalak ahalmena dauka jabari publikoan edo erabilera publikoko gune pribatuan ordenantza honen arabera egiten diren grabaketak ikuskatu eta kontrolatzeko, baimenean zehaztutako baldintza eta eskakizunak betetzen direla bermatzeko. Eta baimena ez daukaten grabaketa guztiak debekatuko ditu, 3. artikuluan zehaztutakoak salbu.

2. Ikuskapen- eta zaintza-lanak Udaltzaingoko agenteek eta kasu bakoitzean eskumena duten udal-zerbitzuek egingo dituzte, eta ordenantza honetan jasotako arauak zehatz-mehatz betetzen direla zainduko dute.

3. Ikuskapena egiten duen funtzionarioak grabaketa modu desegokian egiten ari dela egiaztatuko balu, horretarako baimenik ez dagoelako edo baimenaren baldintzak betetzen ez direlako, dagokion salaketa edo ikuskapen akta egingo du, grabaketa desegokia egiten ari den pertsonari, borondatez, jarduerarekin amaitzeko eta, egongo balira, elementu eta instalazioak kentzeko eskatuko dio, eta ohartaraziko dio horrela egingo ez balu, ofizioz egingo dela une horretan bertan.

4. Udaltzaingoak, aipatutako tramiteak eginda, ipinitako elementu eta instalazioak kenduko ditu, eta tresneria konfiskatuko du, posible balitz. Jardun guzti hauen gastuak erabilera desegokia egin duenaren kontura izango dira, eta horrela jasoko da egindako akta edo salaketan. Eta hori guztia, egokia den zigor espedientea zabaltzearen kalterik gabe, non hartutako neurriak mantentzen diren edo ez erabakiko den, eta egokia den tributu egokitzapena egitearen kalterik gabe.

III. KAPITULUA. TRIBUTUZKO BETEBEHARRAK

47. artikulua. Ordaindu beharreko tasa eta prezio publikoak


Kasuan kasu ordaindu beharreko tasa eta prezio publikoen erregulazioa ordenantza fiskaletan edota testu erregulatuarekin jasotakoa izango da, eta euren zenbatekoa baimenaren erabakian jasoko da.

HIRUGARREN TITULUA. GAZTELUGATXEKO BIOTOPO BABESTUARI BURUZKO BEREZITASUNAK.

48. artikulua. Gaztelugatxe Uhartean eta sarbidean grabaketak egitea.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4
AR-E 88/01-22

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2022
08:09:52

EXPEDIENTE ::

2022IDA_ERA_0155

Data: 08/06/2022

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:

Erregistro nagusia

CSV: 07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4





Gaztelugatxe Uhartea eta bere sarbidea lurreko itsas- lehorreko jabari publikoa denez, bertan ezingo da inolako grabaketarik egin Estatuko Administrazioak egokia den baimena eman gabe. Baimen hori eskuratzeko, Bermeoko Udalaren alde aurreko txostena egon beharko da derrigor.

49. artikulua: Gaztelugatxerako sarbidera doan errepidean grabaketak egitea.

1. Gaztelugatxerako sarbidera doan errepidea Bermeoko Udalaren jabari publikoa denez, bisitarien afluentsia kontrolatu edota mugatzeko beharrezko neurriak hartzeaz gain, Bermeoko Udalaren baimena beharko da, ezinbestean, eremu horretan grabaketak egiteko.
2. Biotopo babestuan kokatzen den eremua izanda, bertan egiten diren grabaketak salbuespena izango dira, eta grabaketa horien interes orokor eta berezia behar bezala justifikatuta egongo da. Eta Udalaren baimenaz gain, Bizkaiko Foru Aldundiko biotopo babestuaren kudeatzailearen baimena ere beharko da.
3. Interes orokor eta berezi hori, biotopoaren eraginarekin alderatuko da, eta biotopoa kalte edo eragin desagokirik sortzeko arriskua ikusiko balitz, baimen eskaria ukatu egin beharko da besterik gabe.
4. Ukatu egin beharko dira ere Biotopoa eta Gaztelugatxeren izena, irudia eta euren erabilera arrunta kaltetu daitekeela ikusiko balitz, bai grabaketaren edukiagatik, bai grabaketaren helburuagatik.
5. Kokapen honetan egin nahi diren grabaketen baimena, beste edozein baimenetarako bezala ordenantza honetan xedatutako agiri eta baldintzen arabera egingo da, baina ebazpena eman aurretik, biotopoaren organo kudeatzaileari txostena eskatu beharko zaio.
6. Inolaz ere ezingo dira baimendu Gaztelugatxe Biotopo babestua izendatzen zuen 229/1998 Dekretuak debekatzen dituen erabilera edo okupazioak eskatzen dituzten grabaketak.

LAUGARREN TITULUA. DIZIPLINA ARAUBIDEA

50. artikulua. Arau-haustekak.

Ordenantza honen arau-haustetzat hartuko dira bertan jasotako aginduak urratzen dituzten egite edo ez-egiteak, hurrengo artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Arau-hauste orok berekin ekarriko du erantzuleei dagozkien zehapenak ezartzea, bai eta, hala badagokio, kalteen ordaina eta ordaina emateko betebeharra ere,



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 - Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2022
08:09:52

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0155

Data: 08/06/2022

Lekua: Bermeon

Erregistro unitadea:

Erregistro nagusia

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4

AR-E 88/01-22

CSV: 07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4





legezkotasuna eta jabari publikoa eta tokiko ondarea babesteko hartu beharreko neurrien kalterik gabe.

51. artikulua. Arau-hausteen klasifikazioa eta tipifikazioa.

1. Ordenantza honetako betebeharrak ez betetzeagatik egindako arau-haustek arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke. Arau-hauste horiek Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 140. eta 141. artikuluen arabera sailkatu, tipifikatu eta zigortzen dira.

2. Arau-hauste arinak izango dira ordenantza honetan larritzat edo oso larritzat tipifikatuta ez dauden urraketak. 750 eurorainoko isunarekin zehatuko dira.

3. Arau-hauste larritzat joko dira:

- Urtebetean hiru falta arin edo gehiago egitea.
- Eremu okupatuak behar bezalako garbitasun- eta kontserbazio-baldintzetan ez mantentzea, grabaketa egiten den bitartean eta hura amaitu ondoren.
- Udal zerbitzuek edo udaltzainek araudi aplikagarria betetzeko egiten dituzten eskakizunak ez betetzea.
- Baimenik gabeko grabaketak, eskaririk egin ez denean.
- Zaraten eta Dardaren aurkako babeserako udal Ordenantzaren xedatutakoak urratzea.
- Baimendutakoa baino okupazio edo erabilera handiagoa egiten bada, bai elementu edo instalazio gehiago jartzeagatik bai azalera gehiago erabiltzeagatik.
- Kasu bakoitzean nahitaezkoa den ordutegia ez betetzea.
- Grabaketa eten edota elementu eta instalazioak kentzeko aginduak ez betetzea.
- Ondasunetan kalteak sortzea.
- Eragindako bizilagunei eta merkatariei jakinarazteko betebeharra ez betetzea.
- Ordenantza honetako edozein arau ez betetzea, ondorioa larria denean.

Arau-hauste larri horiek 1.500 eurorainoko isunarekin zehatuko dira.

4. Arau-hauste oso larritzat joko dira:

- Urtebetean hiru falta larri edo gehiago egitea.
- Baimendutako jarduera gauzatzea Udaltzaingoa edo Suteak Prebenitzeko eta Itzaltzeko Zerbitzua bertan egon gabe, hori nahitaezkoa denean.
- Pertsonen kalteak saihesteko beharrezko neurriak ez hartzea.
- Baimenean zehaztutako baldintza ez betetzeagatik bizilagun edo pertsonen kalteak eragiten bazaizkie.
- Udaltzain edo funtzionarioei ikuskapenak egitea ukatzea edo trabak ipintzea.
- Nahitaezko lizentzia ukatu denean grabatzen hastea.
- 34., 36. eta 40. artikuluetan araututakoa ez betetzea.
- Ordenantza honetako edozein arau ez betetzea, ondorioa oso larria denean.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 - Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZ ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2022
08:09:52

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0155

Data: 08/06/2022

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:

Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4

AR-E 88/01-22

CSV: 07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4





Arau-hauste oso larri horiek 3.000 eurora arteko isunarekin zehatuko dira, eta, hala badagokio, baimena baliogabetu ahal izango da.

52. artikulua. Zehapenen mailaketa.

1. Zehapenen zenbatekoa zehazteko, proportzionaltasun-printzipioa, inguruabar astungarri eta/edo aringarriak eta irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Arau-hauslearen fede ona edo txarra.
- b) Arau-haustea erantzuleari eman dion baliogarritasuna.
- c) Eragindako kalteen izaera.

2. Erantzukizuna larriagotzen duten inguruabarrak dira:

- a) Arau-haustea egiteko, arau-hauslea ofizio edo kargu publiko baten titulartasunaz gailentzea, egitatea hain zuzen ere ofizio edo karguari dagokion eginbehar funtzionala gauzatzean egin denean izan ezik.
- b) Jarduketa ustez legitimatzen duten egitate-kasuak aldaraziz edo jarduketaren legeko oinarria egiaztatzen duten agiriak faltsutuz egin izana.
- c) Berrito egitea.

3. Erantzukizuna arintzen duten inguruabarrak dira:

- a) Jarduerak eragindako interes publiko edo pribatuei hain kalte larria eragiteko asmorik ez izatea.
- b) Eragindako kaltea zehapen-jarduketak hasi aurretik konpondu edo gutxitu izana erantzuleak.

53. artikulua. Prozedura.

Ordenantza honen kontrako arau haustea zigortzeko prozedura izapidetzeko Herri Administrazioen Prozedura Administrazio Orokorra arautzen duen 39/2015 Legea, Sektore Publikoko Erregimena arautzen duen 40/2015 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko 2/1998 Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak jarraituko dira.

54. artikulua. Erantzuleak

Ordenantza honen kontrako arau hausteen erantzuleak hauek izango dira:

- a) Baimenaren erabakian jasotakoak ez betetzeagatik edo ordenantza honetan jasotakoak ez betetzeagatik, baimenen titularrak.
- b) Baimena eduki gabe, grabaketak egiten dituztenak.
- c) Udalaren berariazko adostasunik gabe baimena eskualdatzen den kasuetan, baimenaren erabakian jasotakoak ez betetzeagatik edo ordenantza honetan jasotakoak




Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 - Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZ ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2022
08:09:52

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0155
Data: 08/06/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4
AR-E 88/01-22

CSV: 07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4





ez betetzeagatik, titularra eta eskualdatuz hartu duena, biak batera, izango dira erantzule.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau behin betikoz onartutako bere testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 lanegun igaro ondoren sartuko da indarrean.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxe: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 13/09/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/09/2022
08:09:52

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0155
Data: 08/06/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4
AR-E 88/01-22

CSV: 07E6000A8FE000T1R6Q5V5S4M4

